

Ikus-Entzunezkoa

Kulturaren Euskal Planaren Ikus-Entzunezkoaren
taldearen bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

1. SARRERA	3
AMIA	4
INDARGUNEAK	4
AUKERAK	6
AHULGUNEAK	8
MEHATXUAK	11
JARDUERA-LERROAK	14
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-LERROAK	17

1. SARRERA

Gaur egungo hausnarketa-gai aurreratuena ikus-entzunezkoak dira, diagnostikoak egiteari zein jarduera-lerroak ezartzeari dagokionez. Izan ere, duela gutxi amaitu da Liburu Zuria eta, horrez gain, irailean ofizialki abian jarri zen erakunde bat Gobernuaren, erakundeen eta arlo pribatuaren hainbat maila koordinatzen dituen.

Baina aurreratuena izateak ez du esan nahi, inola ere, arlorik finkatuena denik. Izan ere, balio-kateetako agenteak ugaritzen ari dira zineman zein telebistan, eta, gainera, agente horietako batzuk ezberdinak dira atal batzuetan. Katalalunian egin den bezala, diru-laguntzetan oinarritutako eta zinemara bakarrik lotutako eredu batetik ikus-entzunezkoen eredu integralago batera igarotzea oso zaila egiten ari da. Bigarren eredu horrek zinemaren berezitasunak errespetatzen ditu, eta bazter batean uzten du laguntza eskatzearen kontzeptua, elkarrekin erabakitzearen eta parte-hartzearen alde. Agian, bi arrazoi hauengatik daude zailtasun horiek: batetik, jardunean dauden agente pribatuen ahultasunagatik, aspaldi atzean utzitako ikuspegia baitute, eta bestetik, ahultasun hori dela eta, erakundeek eta EiTbK kostuei eta aipatutako igarotzearen emaitzei buruz dituzten zalantzengatik.

Bestalde, sektoreko agenteekin izandako eztabaida (produkzio-etxeak, banatzaileak, errealizadore berriak, gidoigileak, Media Antena, EiTb, Unibertsitatea...) ez da uste bezain aberasgarria izan. Beharbada, hausnarketa eta neurri garrantzitsu gehienak jada Liburu Zurian zeudelako gertatu da hori, edo liburu horren edukiaren eta agente inplikatuenean jardunaren arteko kontrastea oraindik ere nabarmena delako. Ez dago zertan ezkutatu; eztabaidan zehar, proposamenak ezik aldarrikapenak egin ziren eta produkzio-etxeek eta EiTbK egun dituzten harremanei buruz hitz egin zen gehienbat.

Une honetako egonez hori gainditzeko eta Eusko Jaurlaritzako sailak, EiTb, sektorea eta azpisektoreak ados jartzeko, batetik, pazientzia eta agente guztien arteko elkarlana behar dira eta, bestetik, denen artean hausnartutako neurriak zentzuz aplikatu behar dira. Hori posible egiteko behar diren osagai guztiak mahai gainean daude; jarrera positiboa bakarrik falta da osagai horiek guztiak batera jartzeko.

AMIA

INDARGUNEAK

Prestakuntza eta ikerketa

EAEk prestakuntzaren eta gaikuntza profesionalaren arloan dituen baliabideek oso izen ona dute eta oso eragile garrantzitsua izan daitezke ikus-entzunezko industriarako. Baliabide horiek dira ustiatu beharreko indargune nagusienetako bat.

Hezkuntza-sistema kulturalan eta baliozko unibertsitate-eredu eta -sare batean oinarrituta dagoenez, oso modu positiboan eragin diezaioke ikus-entzunezko industriari.

Sorkuntza

EiTBren giza baliabide kualifikatuak kalitatezko ondare kolektiboa dira ikus-entzunezko edukiak sortzeko.

Animazioaren sektoreak irauteko eta egokitzeko gaitasuna duela erakutsi du. Gainera, lana sortzen du, eta funtsezkoa da ikus-entzunezko industria tradizionala eta teknologia digital berriak lotzeko.

EAEko hainbat zuzendarik, sortzailek, interpretek, teknikariek eta enpresek oso izen ona dute.

Ekoizpena

Ikus-entzunezko sektorearen beste indarguneetako bat da EiTBk programazioaren eta ekoizpenaren arloan duen esperientzia handia. Horrez gain, gogoratu behar da EiTBk ikus-entzunezko industria-sare pribatua dinamizatzearen alde egin duela, arlo pribatuaren ekoizpena bultzatzeko.

Gainera, ekoizpen-marka moduko bat sortu da ikus-entzunezko alor batzuetan (euskaletan, animazioa...).

Banaketa-zabalkundea

Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko kalitatezko sare kulturala dago: batetik, jaialdiak (Donostia, Bilbo, Biarritz, beldurrezko zinema, publizitatea...) egiten dira eta, horrez gain, ikus-entzunezkoen programazioak eta zirkuitu kulturalak

ere (zinemateketatik hasi eta udaletako zinema-emanaldietara) azpimarratu eta erabili behar dira.

Udaletako areto publikoen sarea oso zabala da.

Eskariak eta merkatuak

Badirudi gaur egungo euskararen merkatua izan daitekeela oinarria sektorearen garapenari bultzada bat emateko, EiTb edukien kontsumorako erreferentzia finkoa baita. Eta, bereziki, EiTbk bultzada handia emango lioke merkatuari bere programen katalogoa tokiko telebisten zerbitzuan jarriko balu.

Politikak

Eusko Jaurlaritzak estrategikotzat du ikus-entzunezko sektorea, ikus-entzunezko sektorearen Liburu Zurian eta EiTbren azpiegituren eta ekipamenduen inbertsioari buruzko plan publikoan ikusten denez.

Bestalde, EAEko erakundeek informazio-gizartearen eta teknologia berrien aldeko konpromisoa hartu dute, eta horrek mesede egiten dio ikus-entzunezko sektoreari.

Eusko Jaurlaritzaren eta EiTbren artean sinatutako kontratu-programan, telebista publikoak ikus-entzunezko sektorearen garapenean jokatu behar duen papera berdefinitu da.

Bestalde, hainbat agente publikok eta pribatuk elkarrizketak izan dituzte, eta hainbat akordio sektorial sinatu dituzte (adibidez, EiTbren eta IBAIAren artean hainbat urtetarako sinatutako 2000-2002 hitzarmena). Hitzarmen hori berriz negoziatuko balitz eta helburuak zabalduko balira –batez ere, ekoizpen zinematografikoaren alorrean– ikus-entzunezkoen sektorea egonkorragoa eta gardenagoa izango litzateke, prezio publikoak ezartzeari esker.

Gizartea

Zinemaren kontsumoa nahiko altua da, euskal zinemak izen ona du gizartean eta telebista gutxiago ikusten da Estatuan baino.

AUKERAK

Sorkuntza

Kanal tematikoen bidez, ikus-entzunezko eskaintza pertsonalizatua asko haztea espero da, kanal orokorren kaltetan. Bide horrek aukera handiak sor ditzake.

Zinemagileen belaunaldi berriak esperientzia handia du film laburren alorrean egindako lanagatik, eta arrakasta handia izaten ari da. Gainera, euskaraz egiten dute lan askok eta askok, eta horrek aukera bikaina ematen du behin betiko "Zinema Euskaraz"-en gaiari heltzeko.

Balioa eman behar zaio film laburrak telebista publikoetan eta ordu egokietan emititzeari.

Ekoizpena

- ◆ Sorkuntzaren aldetik, ekoizpen kulturalak jarrera irekia du beti aukera berrien aurrean, teknologiak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartu gabe.
- ◆ Informazio-gizartearen indarraldiaren ondorioz, banda zabalerako edukien eskaria haztea espero da, eta ikus-entzunezko ekoizpenak etekina atera behar lioke hazkunde horri.
- ◆ Irudiaren eta soinuaren tratamenduaren eta ekoizpenaren arloan teknologia digital berriak erabiltzearen ondorioz kostuak merkatzen dira, eta beharrezkoa da produktu-mota horren irteera ziurtatzea.
- ◆ "Ereduen industriaren" ideiak I+G-ren antza gehiago du fabrikazio-industria edo manufaktura tradizionalarena baino. Horrek kalitate-maila altua eskatzen du, arriskatzeko gaitasuna, sortzaileak bultzatzea, informaziorako kontaktu-sareak ezartzea...
- ◆ Garapenari emandako laguntzak dira bide bakarra koprodukzioa, lankidetzak eta produktuaren aurreramentu bultzatzeko.
- ◆ Ikus-entzunezko sektoretik haratago, EAEk industria-sare lehiakorra, bizia eta malgua du eta, gainera, esperientzia handia bildu da beste sektoreak klusterren bidez dinamizatzearen alorrean. Beraz, aukera bikaina dago baliabide eta esperientzia horiei etekina ateratzeko.
- ◆ Zinemagileen belaunaldi berriak esperientzia handia du film laburren alorrean egindako lanagatik, eta arrakasta handia izaten ari da. Gainera, euskaraz egiten dute lan askok eta askok, eta horrek aukera bikaina ematen du behin betiko "Zinema Euskaraz"-en gaiari heltzeko.

- ♦ Mugarik gabeko telebistari buruzko Legea modu eraginkorrean aplikatu da, eta bereziki, telebistek zineman eta bestelako ikus-entzunezko edukietan egin beharreko inbertsioari buruzko atala (tokikoak ez diren telebistetako diru-sarreraren % 5). Horrek ekoizpen eta banaketa independentea indartzen lagundu behar du. Azpimarratu behar da laster onartuko dela inbertsio hori egiteko betebeharra zehazten duen erregelamendua.

Banaketa eta zabalkundea

Zineman eta telebistan bikoizketaren alorrean egindako inbertsio handia eta euskarara bikoiztutako filmen katalogoa oso gaizki aprobetxatuta daude. Beraz, beharrezkoa da produktu horiek tokiko telebistetan eta ikastetxeetan ematea, emanaldi horiek egiten dituztenekin akordioak egitea, film berriak sustatzen saiatzea eta bideo eta DVDrako bildumak egitea.

EiTBk FORTAn parte hartzeari, LTDren garapenari eta Euskalteli esker, geroz eta telebista-kanal gehiago daude, eta ondorioz, baita produktuak banatzeko eta emanaldiak egiteko baliabide gehiago ere. Dena den, kirol-jardunaldiak (Espainiako futbol-liga...) eta Ipar Amerikako eduki-multzo handiak emititzeko eskubideak erostea da FORTAren egiteko nagusia. Beraz, gaur egun, ez da esportazio-plataforma, eta gainera, ia ez du antena-eskubiderik erosten edo programarik banatzen.

EAEko enpresen ekoizpena batera merkaturatzeko plataforma bateratuak sor daitezke. Prozesu horretan ikus-entzunezko edukiak banatzen lan egiten duten agente pribatuek parte hartu beharko lukete, aipatutako Esportazio Partzuergoa bezalako bidez.

EAEko ikus-entzunezko programek gero eta sona handiagoa dute nazioartean eta finkatzen ari dira (Niniak, Kimuak, Donostiako Zinemaldia...), EAEko sortzaileek egindako film laburrak nazioartean banatzeari esker.

Donostiako Zinemaldia eta Bilboko Film Laburren eta Zinema Dokumentalaren Jaialdia ezagunak dira nazioartean, eta eraginkorrak izan beharko lukete EAEko ekoizpena erakusteko.

Eskariak eta merkatuak

- ♦ Eusko Jaurlaritzak banda zabaleko azpiegiturak garatzearen alde egin du. Beraz, ikus-entzunezko edukiak formatu interaktibo berrietan kontsumitzeko dagoen eskaria ase ahal izango da.

Politikak

- ♦ Kultur Industrien eta Arteen Euskal Institutua sortzeko aukera dago (musikaren, argitalpenaren, antzerkiaren... arloko agenteek ere eskatu dute).

Institutu horrek laguntza-politikak koordinatu eta sektorearen erabilera egokia eta kalitatea zainduko lituzke, Ikus-entzunezko Behatokiarekin batera.

- ♦ "Ekonomia berrira" lotutako sektoreen eta, batez ere, ukiezinen ustiaketa aritzen direnen (ikus-entzunezko sektorea, adibidez) baldintza espezifikoetara egokitutako finantziario-tresnak eta inbertsioa bultzatu behar direla konturatu gara.

Gizartea

- ♦ Europako zinema mota guztietako neurriekin lagundu behar dela konturatu gara, eta zinema horren barruan EAEko ikus-entzunezkoak sartu behar direla.

AHULGUNEAK

Prestakuntza eta ikerketa

Hezkuntzaren arloan, prestakuntza teknikoari garrantzi gehiegi emateko joera nabari da. Horrek egiturazko defizita sortzen du ikus-entzunezko enpresa-kudeaketan. Gainera, kontuan hartu behar da enpresa horietako gehienak txikiak izaten direla.

- ♦ Ikus-entzunezkoen arloko prestakuntza-eskaintza espezifikoa gutxi garatu da, espezializazio falta dago. Integrazio eta komunikazio eskasa egon da sektore ekoizlearen eta prestakuntza-erakundearen artean, baliabideak aprobetxatzerakoan zein beharrei aurre hartzerakoan.
- ♦ Ikerketa eta garapena (I+G) gutxi bultzatu da ikus-entzunezko proiektu eta formatu berrietan. Gainera, EITBk ez ditu ordaindu ekoiztiko diren proiektuen formatuen gaineko eskubideak.

Sorkuntza

Teknologia berriak erabiltzeko ezjakintasuna dago, bai ikus-entzunezko edukiak sortzeko, bai hainbat formatu erabiltzeko edukien euskarri gisa.

Ekoizpena

Hau da ekoizpenaren arloko gabezia nagusia: enpresek joera dute beren buruak tokiko ekoizpenetara eta ekoizpen espezifikotara mugatzeko, eta ez dira integratzen edo ez dute parte hartzen ekoizpen-proiektuetan.

- ♦ Euskal sektorea oso tamaina txikikoa denez, gaitasun gutxi du bere burua finantzatzeko eta inbertsioak egiteko. Egoera hori izanik, finantziarioek eta laguntzek berebiziko garrantzia dute.
- ♦ EAEko ikus-entzunezko industriak ez ditu behar bezala baliatzen EBk, Madrilgo Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak euskal industria sustatzeko martxan jarritako ekimenak.

Ikus-entzunezko azpiegiturei eta ekipamenduei buruzko erreferenterik ez dagoenez, EAEko ikus-entzunezkoen sektoreko enpresei ezinezkoa egiten zaie beren inbertsioak optimizatzea, proiektu berriei aurre egitea eta nazioarteko bihurtzeko lanean sakontzea.

- ♦ Teknikariak eta ekoizleak enpresak izan arren, banaka funtzionatzen dute; alegia, ez dute industria-sare bat osatzen, ez dira enpresa sendoak, eta Espainiako ikus-entzunezkoen panorama zabalean galtzen dira.
- ♦ EAEko ikus-entzunezko sektorearen ahulgune nagusiak dira tamaina txikiko enpresen atomizazioa, jarduera-eremu mugatua eta EiTBrerikiko menpekotasuna.
- ♦ Sektore pribatuak ere ez du sektore gisa jarduten. Horregatik, interesgarria izango litzateke hitzarmenak egiteko politika bat abian jartzea, baita kide estrategiko bat edukitzea ere.
- ♦ Ikus-entzunezkoen arloko enpleguaren behin-behinekotasuna oso handia da, eta gainera, egiturazkoa.
- ♦ EiTBrer lotutako industria-sareak arriskuak kanporatzearen logika erabiltzen du, hein handi batean.

80ko hamarkadan zinema eta telebista elkarlanean aritzen ziren, baina 90eko hamarkadaren bigarren zatian elkarlan hori amaitu zen, eta oraindik ere horren ondorioak ordaintzen ari gara, baita Euskalmediaren krisiaren ondorioak ere.

EiTBrer ez dauka esperientziarik fikziozko, dokumentalen arloko eta animaziozko edukiak –zinematografikoak zein telebistakoak– sortzeko, ekoizteko, banatzeko eta erakusteko.

- ♦ Irratiaz eta telebistaz landa, bertako merkatua gutxi egituratuta dago, eta batez ere, euskarazko ekoizpenaren merkatua. Merkatu hori bertakoak ez diren enpresen menpe dago ia erabat banaketaren arloan, eta geroz eta gehiago emanaldien arloan.
- ♦ Lehiakortasunari dagokionez, EAEko ikus-entzunezko enpresak desabantailan daude koprodukzio-proiektuetan parte hartzen dutenean. Hala, “bazkide

pobrearen mailan” geratzen dira beren lehiakideen parean, haiek finantziario-sistema egokituak baitituzte, antena-eskubideak baldintza onuragarriagoetan erosteko prezioak...

- ◆ Topiko eta klixeeen arabera, ikus-entzunezko sektorea diru-laguntza publikoen menpe dago erabat. Baina, beste industria-sektore batzuekin alderatuz gero, ohartuko gara, laguntza gutxien jasotzen duen sektoreetako bat dela, laguntza horiek oro har hartuta eta ez produktu-unitateka. Dena den ez dira ahaztu behar zenbat itzulkin eta onura jasotzen dituzten diru-kutxa publikoek PFEZ, BEZ, Gizarte Seguratzaren kotizazio... moduan.
- ◆ Euskara gaur egungo gizartean gara dadin, ezinbestekoa da ikus-entzunezko eskaintza –nahiz eta genero nagusietan bikoiztua izan– eta ikus-entzunezko industria-sare propioa edukitzea.

Banaketa eta emanaldiak

Ikus-entzunezko industriaren prozesuetarako teknologia berrien aplikazio integralari buruzko ezagutza mugatua da, eta ondorioz, ez zaio nahikoa etekin ateratzen ikus-entzunezko produktuak banatzeko eta erakusteko sortzen ari diren aukera berriei.

- ◆ Ikus-entzunezko esperimenterako gunerik ez dago, ez zentzu komertzial hutsean, baina bai publikoari eta komunikabideei begira.

Ikus-entzunezkoen banaketa ez da gertuko eta nazioarteko merkatuetan egiten oraindik. Eta merkatu horietara iristeko zailtasunek sektore pribatuaren errentagarritasun globala hobetzea oztopatzen dute.

Bestalde, publizitaterako eta produktu berriak merkaturatzeko baliabideak falta dira.

Eskariak eta merkatuak

Telebistan zein irratan, Estatuko kanal pribatu eta publikoek EAEko entzuleriaren % 75 biltzen dute, eta EAEkoa ez den ekoizpena pribilegiatzen dute.

Politikak

- ◆ Ikus-entzunezkoak Eusko Jaurlaritzaren gai estrategikoetako bat dira, baina ez oraindik ikus-entzunezko digitala, EiTbK digitalizatorako egin dituen inbertsioak kontuan hartzen ez badira behintzat.
- ◆ Lehenengo pausoak eman diren arren, ikus-entzunezko sektorea bultzatzeko politiken aplikazioa atzeratu xamar dago, eta esperientzia falta da arlo

horretan. Beste autonomia erkidego batzuetan sektorea dinamizatzeko plan zehatzak dauzkate dagoeneko.

Ikus-entzunezko politikaren arloan, ez da egon EAEko erakundeen arteko koordinaziorik Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien eta hiriburuen artean. Halaber, koordinazio falta nabaritu da Europarekin eta ICAAren laguntzekin.

- ♦ Sektoreak aukera eta gaitasun gutxi du autofinantzatzeko eta inbertsioak egiteko, eta beraz, finantziatorako edota laguntzak emateko berariazko politikak behar ditu.
- ♦ EiTBk, EAEko komunikabide publiko garrantzitsuena izanik, ez du behar bezala bete sektorea garatzeko agentze bultzatzailearen papera.
- ♦ Kanpotik begiratuta, ez da erraza negozio-eredu definitu bat duen sektore errentagarri gisa ikustea.

Oso zaila da merkatuak eskaintzen dituen finantziazio-tresnak lortzea (kreditu-lineak, deskontu-lineak...), batetik, operadore finantzarioak fidagaitz agertzen baitira "arrisku handikotzat" duten sektore batean parte hartzeko eta, bestetik, ez baitago arriskuak konpentsatzeko sistema artikulaturik (dagoeneko desagertuta dagoen berme zinematografikoko funtsaren gisakoak). Gogoratu behar da arrisku handiko beste ekonomia-jarduera batzuetan badituztela antzeko tresnak (adibidez, aseguruaren konpentsaziorako funtsa edo soldatak bermatzeko funtsa - FOGASA...).

Gizartea

Euskarak kultur testuinguru berezia sortzen du. Euskarazko ikus-entzunezkoak askoz atzerago daude euskararen erabilera soziolinguistikoak baino. Hori horrela da, batez ere, eskariarengatik eta ikus-entzunezkoen gizarte-ohiturengatik, eta ez hainbeste eskaintza-arazoengatik (nahiz arazo hori ere egon badagoen).

Euskalduntzeko neurriak bilduko dituen glosario bat egiteko dago, ikus-entzunezko, aisialdirako eta IKTBen industriak arazoarekin aurrez aurre jartzeko.

MEHATXUAK

Sorkuntza

- ◆ Kulturarako baliabide publiko mugatuak aurreikusten dira Euskadi Informazio Gizartean Planean (EIGP).
- ◆ Euskarazko kulturaren egoera ezberdina dela ez ulertzea bezain arazotsua da euskarazko ekoizpena eta sorkuntza aparteko zerbait bezala tratatzea.
- ◆ Gure kanpo-merkatua mugatua denez, arrisku gutxi dago oraingoz, baina esportazioan bakarrik oinarritzen bagara, nazioarteko merkatuentzako denbora-pasarako kostu baxuko fabrika “estandar” batean bihurtuko dugu EAEko ikus-entzunezko sektorea, eta gure sektoreak eragin kultural gutxi izango du kanpoko merkatuetan.

Ekoizpena

- ◆ Gehiegizko ikuspuntu industrialak erabiltzen da azterketak egiteko eta politikak zehazteko, eta ikus-entzunezko ekoizpenaren eragin kulturala hazten da.
- ◆ Nahikoa dugu edukiak banatzen dituen eta kuotak eta kanalak lortzeko lanetan murgiltzen den herri bat izatearekin, eta ez dugu edukien ekoizpenean inbertitzen.

Enpresak geografikoki (Madrilen) edo talde handietan kontzentratzeak ikus-entzunezko edukien banaketa eta ekoizpena monopoliza dezake, eta horrek eragina du EAEko ikus-entzunezko industrian.

Banaketa eta zabalkundea

Entzuleria handiak eta inbertsiorako gaitasun handia dituzten agente globalak eta tamaina handiko agenteak mehatxu handia izan daitezke bertako ikus-entzunezko produktuak eta edukiak banatzeko eta erakusteko.

- ◆ Telebistek, agian, futbol-emisioen eskubideak negoziatu beharko dituztenez eta prezioen inflazioa aurreikusten denez, gerta daitezke telebistek oro har eta EiTbK edukiei esleitutako partidak berriz esleitu behar izatea. Horretarako, partida horretara eraman beharko dira, lehen, EAEko enpresen ekoizpen-eskubideak ordaintzeko esleitutako partidak.
- ◆ Zinemako eskubideak eta hainbat telebista-formatu *major* iparramerikarrei erosteko hitzarmen globalak indarrean daude oraindik, eta kontratu berriak negoziatzen ari dira gainera. Hitzarmen horiek sorten edo zerrenda itxien sistemaren bidez egiten dira, eta nahitaezkoa da ondo eginda ote dauden aztertzea, lehia askearen aurkakoak izan baitaitezke.

Eskariak eta merkatuak

Izaera globaleko eduki "komertzialen" hazkunde handia da EAeko ikus-entzunezko ekoizpenaren mehatxu nagusia. Eduki horiek EAeko merkatuan sartzen dira oldarka, eta kasu batzuetan, merkatu hori bete dezakete eta bertako ekoizpenei irtetea galarazi.

Entzuleriaren lehentasunak eta ohiturak identifikatzeko mekanismo egokiak ezartzea komeni da; izan ere, lehentasun eta ohitura horiek aldatzen ari dira, eta horrek eduki zuzen eta egokiak aurreratzera behartzen gaitu. Bestela, arriskua dago joera berri horiei behar bezala ez erantzuteko.

Politikak

- ♦ Onartutako jarduera-lerroak martxan jartzeko aurrekontuetan diru-hornidurarik ez egotea gerta daiteke.

Autonomia erkidegoek beren ikus-entzunezko industriei laguntzeko ekimenek EAeko ikus-entzunezko industria mehatxatzen dute, hemen ere ez badira antzeko laguntza eta politika ekonomikoak garatzen.

- ♦ Printzipio gisa, EiTBreren erakarpen indarrak fidatzen gara, oinarri gisa duen ereduak krisian dagoenean. Erakartzeko funtzio hori betetzen duenean, EITBk bere interes propioak sektorearen interesekin nahas ditzake, eta erakundearen interesen arabera erabakiak har ditzake.

Gizartea

- ♦ Orotariko telebista-programazio populista gain behera etorri da, oro har; telebista tematikoak eskaintza zatikatzen du; ordainketa-kultura ikus-entzunezko sektorerara igaro da... Horrek guztiak arazoak sortzen dizkie gizarte guztiei, baina batez ere, euskal gizarteak bezala, bere nortasuna finkatuta ez daukatenei.

AMIA

Botatua.

JARDUERA-LERROAK

1. Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak.

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek (kulturaren, industriaren, ogasunaren, hezkuntzaren eta lanaren arlokoak) eta foru-aldundiek ikus-entzunezko sektoreari buruzko politika integrala garatzea, erakundearteko erakunde egonkor bat eta sektorearekin kluster bat sortuz. Hala, sektorearen politikak eta ikus-entzunezko produktu kulturala bateragarri egin nahi dira.

ETB 1-i lehentasuna ematea eta, deskonexioagatik edo tokiko jarduereremukoak izateagatik, Eusko Jaurlaritzaren ardurapean dauden irrastien eta telebista kateen kuota soziolinguistikoei eustea.

Enpresa-sektore pribatuak antolatutako erakunde guztietan modu aktiboan parte har dezan ziurtatzea, ikus-entzunezkoei buruzko politika eraginkorra izango dela bermatzeko eta politika hori, benetan, EAEko ikus-entzunezko sektorea indartzeko eta hazteko izango dela ziurtatzeko.

Zinemari buruzko eskuduntza modu globalean eskualda dezan Estatuari eskatzea beharrezkoa den eta gai horrek lehentasunik duen planteatzea. Hala egingo balitz, ICAAren funtsaren % 6,17 EAEren esku egongo litzateke (funts hori 37 milioi eurokoa da).

2. Gizartea

- Garrantzitsua da ikus-entzunezko komunikazioari buruzko euskal kontseilua martxan jartzea, batetik, EAEko komunikazio-sistema plurala, kalitatezkoa eta autonomia izan dadin eta, bestetik, EAEko operadoreek eta sektoreko agenteek indarrean dagoen legeria betetzen dutela kontrola dadin modu eraginkorren. Ikus-entzunezko edukiei segimendua egitea.
- Komunikabideek bertako ikus-entzunezko produktuak bultzatzea.

3. Enpresa-sarea

3.1. *Baliabideak bultzatzea (prestakuntza, enplegua, lankidetzeta...).*

Euskarara egindako bikoizketak bultzatzea eta gehitzea, zineman zein telebistan. Horretarako, zinema-aretoetan euskarazko eskaintza minimo baina iraunkorra ziurtatu nahi da, produktu horiek ikustea bultzatu eta, urtero, euskara hutsezko zinema eta *TV movie*-ak ekoitzi nahi dira.

Arreta berezia jartzea giza baliabideen prestakuntzan, maila edozein dela ere (sorkuntza, maila artistikoa, maila teknikoa). Halaber, sorkuntzarako talentua erakartzeko politika esplizituak garatzea.

Zuzendaritza- eta enpresa-prestakuntzaren arloan, berariazko prestakuntza-zikloak bultzatzea (goi mailako ikasketen edo masterren antzekoak).

Prestakuntza ekoizpenarekin, ikerketa produktiboarekin eta esperimentazioarekin lotzea.

3.2. Inbertsioa eta finantziarioa

Finantziario-neurriak bultzatzea enpresek aurrez kapital nahikoa eduki dezaten, ondoren, proiektu jakinak egin behar dituztenean, inbertsioak egiteko eta funts publiko eta pribatuetako laguntzak jasotzeko.

Finantziarioaren eta arrisku-kapitalaren lerroei lehentasuna ematea.

Sektoreko enpresak finantzatzeko berariazko tresnak sortzeaz gain, neurri fiskalak... hartzea egungo eta etorkizuneko enpresa-proiektuetara kapitala erakartzeko.

4. Enpresa-sarearen antolaketa (informazioa, araudiak, asoziazionismoa eta balizko erakunde bultzatzaileak).

EiTBk ikus-entzunezko sektore guztian zeregin aktiboa eta globala izan dezan bultzatzea.

EiTBren eta sektore pribatuaren artean ekoizpenari buruzko hitzarmena egin dadin bultzatzea. Hitzarmen horretan, gutxieneko ekoizpen-kopuru bat (film luzeak, laburrak, *TV movie*-ak, dokumentalak) bideratzeko printzipio orokorrak ezarri behar dira, kalitate-irizpideak eta errentagarritasun ekonomiko eta sozialeko irizpideak kontuan hartuta. Hitzarmen horren bidez, sektorea garatzea oztopa dezaketen alde bakarreko erabakiak ekidindo liriateke.

Behatoki batek sektoreari etengabeko segimendua egitea. Behatoki horren lana izango da informazioa normalizatzea eta beste lurralde-eremu batzuekin konparatzea, formatu, produktu eta merkatuetan dauden joerak ezagutzeko. Txartel-lehiatilen kontrolari buruzko informazioa –behatokiarena berarena edo eskatutakoa– ere eduki beharko luke, batez ere, euskarazko filmen emanaldiei buruzko informazioa edukitzeko.

5. Produktuari buruzko irizpideak (zer nahi den eta zer den posible) eta irizpide horiek euskararekin edo kulturarekin eduki dezaketen erlazioa

- Sorkuntza eta kalitatea bultzatzea, EAE barrurako zein kanporako balio duen ekoizpena egiteko. Horretarako, programak, formatuak eta filmak banatzea eta esportatzea bultzatu behar da, bereziki.

6. Balio- eta kudeaketa-kateari buruzko alderdiak

6.1. Teknologia, I+G+B

6.2. Sorkuntza

Errealizadore eta sortzaile esperimental berriak eta gidoilariak bultzatzea, berrikuntzaren alde egiteko eta, aldi berean, aurreko hamarkadetan Madrila joandako baliabideak erakartzeko.

6.3. Ekoizpena

Digitalizaziotik eratorritako kate eta merkatu berriei etekina ateratzea, eta formatu anitzeko produktuen alde egitea, bezero bakar bati zuzendutako ekoizpena alde batera utziz eta mentalitate esportatzailea garatuz.

6.4. Merkaturatzea/sustatzea

6.5. Zabaltzea

Euskarazko film-emanaldien etekin ekonomiko eskasak ezinbesteko egiten du pizgarri-politika bat hitzartzea **herrietako** emanaldiak egiten dituztenekin eta VHS eta DVDak banatu eta saltzen dituztenekin. Halaber, akordioak egin behar dira handizkari, bideoklub eta saltoki handiekin produktu horiek erakustokietan egon eta bultza daitezen.

ETB 1-ek eutsi egin behar dio bereziki gazteei zuzendutako euskarazko filmen gutxieneko eskaintzari.

6.6. Kudeaketa-eredua hobetzea (ikastaroak, topaketak, aholkularitzak, mintegiak...)

Proiektuak sortzeko guneak garatzea.

7. Merkatua dinamizatzea (marka, labela...) eta nazioarteko bihurtzea

Beharrezkoa da Esportazio Kontsortzioa sortzea, tokiko banatzaileen, EiTBen eta ekoizpen-enpresen ekimenak bateratuz, programak, formatuak eta filmak banatzeko eta esportatzeko. Kontsortzio hori interesgarria da finantziatorako ere, proiektuen aurre-salmenten sistema dela eta.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA-LERROAK

Finantziazio-neurriak bultzatzea enpresek aurrez kapital nahikoa eduki dezaten, ondoren, proiektu jakinak egin behar dituztenean, inbertsioak egiteko eta funts publiko eta pribatuetao laguntzak jasotzeko. Sektoreko enpresak finantzatzeko berariazko tresnak sortzeaz gain, neurri fiskalak... hartzea egungo eta etorkizuneko enpresa-proiektuetara kapitala erakartzeko.

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek (kulturaren, industriaren, ogasunaren, hezkuntzaren eta lanaren arlokoak) eta foru-aldundiek ikus-entzunezko sektoreari buruzko politika integrala garatzea, erakunde arteko erakunde egonkor bat eta sektorearekin kluster bat sortuz. Hala, sektorearen politikak eta ikus-entzunezko produktu kulturala bateragarri egin nahi dira.

EiTBk ikus-entzunezko sektore guztian zeregin aktiboa eta globala izan dezan bultzatzea, sektorearen aniztasuna defendatuz.

Etorkizuneko ikus-entzunezko komunikazioari buruzko euskal kontseiluaren bidez, arau berriak formulatzea bertako komunikazio-sistema publiko eta pribatuaren kalitatea eta autonomia bultzatzeko.

EiTBren eta sektore pribatuaren artean ekoizpenari buruzko hitzarmena egin dadin bultzatzea. Hitzarmen horretan, gutxieneko ekoizpen-kopuru bat (film luzeak, laburrak, *TV movie*-ak, dokumentalak) bideratzeko printzipio orokorrak ezarri behar dira, kalitate-irizpideak eta errentagarritasun ekonomiko eta sozialeko irizpideak kontuan hartuta. Hitzarmen horren bidez, sektorea garatzea oztopa dezaketen alde bakarreko erabakiak ekidingo lirateke (adibidez, antena-eskubideak kalte ditzakeen koprodukzioa...).

Euskarara egindako bikoizketak bultzatzea eta gehitzea, zineman zein telebistan. Horretarako, zinema-aretoetan euskarazko eskaintza minimo baina iraunkorra ziurtatu nahi da, produktu horiek ikustea bultzatu eta, urtero, euskara hutsezko zinema eta *TV movie*-ak ekoitzi nahi dira.